

DELITUTIK ERATORRITAKO

ERANTZUKIZUN ZIBILA

DELITUTIK ERATORRITAKO ERANTZUKIZUN ZIBILA

I. SARRERA

1. Egintza ez-zilegi zibila eta penala: berdintasunak eta berezitasunak
2. Araudiaren bikoiztasuna
3. Zehapen zibilaren eta penalaren arteko ezberdintasunak
4. Sententzia penalaren eragina ebazpen zibilarekiko
5. Erantzukizun zibilaren Asegurua kaltetuaren babes instrumentu
6. Erantzukizun zibilaren eta penalaren arteko hurbilketa

II. ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ARAUDI ZEHATZA KODE PENALEAN

1. Erantzukizun zibilaren edukia
2. Erantzuleen aniztasuna

III. ERANTZULE ZIBILAREN ORDAINEZINTASUNA: KAUDIMENGABEZIAREN ARAZOA

IV. ERANTZUKIZUN ZIBILAREN EXEKUZIOA

V. PERTSONA JURIDIKOEN ADMINISTRATZAILEEN ERANTZUKIZUN ZIBILA

VI. BIBLIOGRAFIA

I.- SARRERA

Erantzukizun zibila Zuzenbidearen munduan aurkitu daiteken erakunderik garrantzitsuenetako bat da, bereziki bere aipamena sarritan egiten baitugu (askotan konturatzen ez bagara ere). Horregatik kontzeptu honen esanahia eta erakundearen funtzionamendua bera ere garbi edukitzea oso interesgarria izango da, ez bakarrik arlo juridikoan mugitzen garenontzat, baizik eta, orokorki, XXI. mendera heltzen ari den gizarte honetan bizi garen guztiontzat.

Hala ere, erantzukizun zibil gaiaren barne hainbeste arazo eta gorabehera ezberdin biltzen direnez, beharrezkoa izango da nolabaiteko murrizketa eta mugaketa egitea hastera goazen hausnarketa edo iradokizun hau amaigabea izan ez dadin. Eta arrazoi honek eraginda nire lana delitutik eratorritako erantzukizun zibilera mugatzea erabaki dut, lehenik gaia bera guztiz erakargarria delako, bertan Zuzenbide zibila eta Zuzenbide penala (edo zatiketa maila abstraktuagora eramanez, Zuzenbide pribatua eta Zuzenbide publikoa) elkartu egiten dira, bata bestearen arteko loturak erakutsiz; eta bestetik arlo honetan gertatu berri den erreformaren ondorioz. Dena dela, aurtengo maiatzaren 23an indarrean sartu den Kode penal berriak orain arteko araudian zenbait aldaketa aipagarri eragin ditu, zeinak ondorengo orrietan aztertuko baititugu.

I.1. EGINTZA EZ-ZILEGI ZIBILA ETA PENALA: BERDINTASUNAK ETA BEREZITASUNAK

Lehenengo komenigarria da erantzukizun terminoaren esanahia zehaztea: erantzukizuna norberaren edo beste baten (beste hau norberaren ardurapean dagoen pertsona izan daiteke, adibidez adin txikiko bat) ekintzetatik edo portaeretatik eratortzen den egitatearekiko sortzen den lotura edo obligazioa izango da, legez edo hitzarmen baten bitartez ezarriko dena¹.

Bi motakoa izan daiteke: zibila, egindako kalte bat ekonomikoki² ordaindu beharra suposatzen duena eta penala (edo kriminala). Azken honek erantzukizunaren bikoizpena eragiten du, zeren, alde batetik, sortutako galera ekonomikoa ordaindu beharko baita, alegia, erantzukizun zibila emango da; eta bestetik, gizarteari egindako eraso ordaintzeko zehapen edo zigor bat ezarriko baita.

Kode penalaren 116.artikuluak honela dio: “delitu edo hoben baten erantzule kriminala dena arlo zibilean ere hala izango da”. Dena dela, errealitatean behintzat,

¹ Irakurri ANTTON IDIAKEZ autoreak, “Erantzukizuna”, *Zuzenbidea/1 Hiztegia*, Donostia, 1987, 103.orrian ematen duen definizioa. Ideia hau sakonduz, “zerbaitengatik edo norbaitegatik erantzunbeharra izateak esan nahi du, norberaren nahiz besteren portaeretatik sortutako kalteak eta galerak ordaindu beharra dagoelako”.

² Erantzukizun zibilak beti diru-ordain bat galdatzen du, zeina eragindako kaltearen tamainakoa izango baita, baina ez du inoiz beste era bateko zigorrik eragingo: ondorioz, kaltegilea kaudimengabea izango balitz bere egoera ekonomikoak hobetzea itxaron beharko da, ezin baita espexeratzeko zigorrik ezarri lehenengo zehapenaren orde.

ezin daiteke esan delitua ondorio zibilen sortzailea denik; hobe da ulertzea egitate bera dela ordena honetan ere eraginak sortarazten dituena³.

“Edozein gizarte zibilizatutan zehapen bat aplikatzea merezi duten jokaera ez-zilegiak aurkitzen ditugu; beste batzuk, ordea, biktimari eragindako kaltea ordaintzeko obligazioa bakarrik sortarazten dute”⁴. Zehapen penala merezi duten jokaerek gizarteko balore garrantzitsuenak erasotzen dituztenak izango dira: bizitza, ohorea, pertsonen segurtasun fisikoa, ordena politikoaren egonkortasuna ... Arlo zibilean ez-zilegiak diren portaerak “sinpleki kaltegarri” bezala definituko ditugu, besterik gabe interes partikular bat urratzen dutelako.

Bestalde, zehapen penalak eta zibilak xede edo helburu ezberdina jarraitzen dute, lehenak egitate kaltegarrien egilea zigortu edo zehatu nahiko du⁵, erantzukizun zibilak, berriz, xede konpontzaileari edo osagarriari erantzuten dio. Azken erakunde honen bitartez urratutako ondasuna atontzea lortu nahi da, eta horregatik posible da ordena zibilean adin txikiko bat, ezgai bat, pertsona juridikoa bat edo errugabea den subjektu bat ere zigortzea. Helburu nagusia kaltetua indemnitzatzea denez, bigarren maila batean uzten da erantzulea zehatzea. Autore

³ Auzitegi Gorenaren, 1. Salaren sententziak, 1988ko urriak 18koak, dioenez “urratze penala (delitua edo hobena) suposatzen duten egitateak eta beraz destaina penala merezi dutenak Kode zibilaren 1089 eta 1092.artikuluek aipatzen duten obligazio zibilen iturri izan daitezke (...) *ex delicto* obligazioak, zeinak hertsiki ez baitira delitutik jaiotzen, osatzen dituzten egitateetatik baizik; eta gauzaren itzulketa nahiz kaltearen ordaina eta egitate zigorgarriak sortutako galeren indemnitzazioa eragiten dituztelako”.

⁴ ANGEL YAGÜEZ, R. DE, *Tratado de responsabilidad civil*, Madrid, 1993, 49.orria.

⁵ Zehapen penalaren zigortze xedea egungo doktrinak zalantzan jarri du, autore berrien iritziz Zuzenbide penalak delitugilearen bergizarteratzea izan behar baitu helburutzat eta ez hura zigortzea.

famatu batek dioen bezala “normalean kalte-ordainaren diru-kopuruak zigorra ezartzeak baino hobeto asetzen du (kaltetua); berau kasuaren berezitasunen arabera ezarri daiteke eta gainera irainorde formal bat izatera mugatu daiteke herrialde anglosaxoietan gertatzen denaren antzera non penny bateko kalte-ordainak ere ezartzen baitira, eta batez ere, arazoa orden penalera pasatzeak ekartzen dituen ondorio larriak ekiditen ditu”⁶.

Autore gehienek iritziz⁷ delitutik eratorritako erantzukizun zibila eta urratze zibilen ondorioz sortutako erantzukizun orokorra berdina dira, bietan oinarria berdina baita, alegia, kalte⁸ baten aurrean gaude pertsona zehatz bati esleitu daitekeena⁹. Hortaz gain, egitatezko suposamen honek arau penal baten aurreikusitakoa bete dezake eta orduan erantzukizun kriminala ere sortuko da¹⁰. Gerta daiteke, beraz, egitate batek bi erantzukizun mota ezberdin hauek sortaraztea, zibila eta penala, baina azken hau Kode penaleko 19 eta 20 artikuluan

⁶ LOPEZ JACOISTE, J.J., *Transformaciones y paradojas de la responsabilidad extracontractual*, Madrid, 1994, 22.orria.

⁷ Ikus denek ordezkaririk gisa PANTALEON, F., “Comentario al artículo 1902”, *Comentarios del Código civil del Ministerio de Justicia*, Madrid, 1991, 1970 eta ond.orriak; eta IDEM, “*Perseverare diabolicum, ¿otra vez la responsabilidad civil en el Código penal?*”, *Jueces para la Democracia*, 19.zbkia, 1993, 6 eta ond.orriak.

⁸ Kontutan izan delitu bat egin arren ekintza horrek kalterik eragin ez badu, ez dela erantzukizun zibilik sortuko.

⁹ Gerta daiteke pertsona hau ez izatea kriminalki erantzule dena, Kode penaleko 120-121 artikuluek diotenaren arabera.

¹⁰ LACRUZ BERDEJO, J.L. eta SANCHO REBULLIDA, F. De A., autoreek azpimarratzen dutenez eragindako kaltea konpondu egin behar da nahiz “delitu baten ondorio izan, nahiz portaera ez-deliktiboen emaitza izan”. (*Elementos de derecho civil*, II, 1., Barcelona, 1988, 488.orria).

jasotako salbuespen zio batengatik desagertuko balitz ere, horrek ez luke erantzukizun zibilaren desagerpena bultzatuko¹¹.

Bestalde, zenbait zehapen zibil espresuki lege zibiletan aurreikusten dira, hala nola, oinordetzeko ezduintasuna, kontratuaren deuseztasuna prestazioa ez betetzeagatik, e.a. Kode penalak aldiz, delituaren ondorio zibilak era orokorrean arautzen ditu 109-122 artikuluetan¹². Araudi hau, dakigun bezala, aurtengo maiatzean indarrean sartu den Kode penalak berri egin du, baina aztertzen ari garen gaiarekiko funtsean behintzat, ez du aldaketa handirik suposatzen.

Hurrengo orrietan araudi hau aztertzen eta iradokitzen saiatuko gara.

I.2. ARAUDIAREN BIKOIZTASUNA

Gaur egun erantzukizun zibilari buruzko arauak bi leku ezberdinetan sakabanaturik azaltzen zaizkigu: Kode penalean (109-126 artikulua) eta Kode zibilean. Sakabanaketa honen zergatia gertaera historikoetan oinarrituta dago: 1822. urtean lehenengo Kode penala argitaratu zen, hau da, erantzukizun zibila orokorki aztertuko zuen Kode zibila baino lehenago. Hori dela eta, legegileak delituetatik eratortzen ziren ondorio zibilak arautzeko, Kode penalean gai honi buruzko xedapen batzuk gehitu zituen. Ordutik, Kode penalek beti erantzukizun zibilari buruzko erregelak jaso izan dituzte, nahiz eta Kode zibilaren

¹¹ ROSAL FERNANDEZ, J. DEL, *Tratado de Derecho español. Parte general*, III, Madrid, 1972, 704. orria.

¹² Kode penal zaharrean 19-22 eta 101-111 artikuluetan jasotzen zen.

argitaratzearekin artikulua penal horien beharrik ez izan; logikoena Kode penalak zuzenean Kode zibilera igortzea litzatekeelarik.

Praktikan, berriz, alderantzizkoa gertatu da, 1889ko Kode zibilak bere 1092.artikuluaren berariazko igorpen bat arautu baitu: bertan esaten zaigunez obligazio zibilak delitutik edo hobenetik jaiotakoak direnean Kode penalera jo beharko dugu; Kode zibilak kalte horien inguruko gorabeherak soilik urratze penal baten emaitza ez direnean arautuko dituelarik.

“Errakuntza” historiko honek beraz, erantzukizun zibilari buruzko araudiaren bikoizketa eragin du: “zentsugabea den 1092.artikulu horrek aipatzen duen erantzukizun zibila 1093.artikuluaren azaltzen den ber-bera da”¹³.

Dena dela, araudia Kode penalean edo Kode zibilean jaso izana ez da funtsezko arazo bat izango epaileek xedapen horiek aplikatzeko aukera badute. Zuzenbidearen eraginkortasun printzipioa jarraituz legeak bere helburua lortzen badu ez du garrantzirik zein ordena juridikotan sailkatzen den.

Horrela da, ikusi dugun bezala Kode penalaren 1996.artikuluak ere bere testuan gai zibilari buruzko artikulua batzuk onartu ditu, autore batzuen ustetan inertziak eraginda, beste batzuentzat politika kriminaleko arrazoiek hala galdatzen dutelako. Azken hauen ustez bi erantzukizun motak erradikalki banatzeak prozesua moteltzea suposatuko luke eta ondorioz, eraginkortasuna galtzea; aldi berean,

¹³ Autore guztiak ez dira hain kritikoak baina M. YZQUIERDO TOLSADA (*La responsabilidad civil. Contractual y extracontractual*, I, Madrid, 1993, 32.orria), goian aipatutako esaldi horretan antzematen den bezala, araudi bikoiztasunaren kontra dago.

helburu garrantzitsu bat, biktimari eragindako kalte eta galerak konpontzea, oztopatuko luke¹⁴.

Berebat, PANTALEON autoreak dio ekonomia-prozesal printzipioaren ondorioz eman zaiela Auzitegi penalei arazo zibil soilak diren gaiei buruz erabakitze aukera, sententzia zehatzailea den kasurako (salbuespenezko kasutan absoluziozkoa denean ere, ikus KP 118.artikulua). Baina autore berak bikoiztasun honen amaiera aldarrikatzen du¹⁵. Horretarako Kode penalean igorpen arau orokor bat sartu beharko litzateke non kontratuz kanpoko erantzukizunari buruzko arazoak¹⁶ konpontzeko Kode zibileko artikuluetara bidaliko baikintuzkete; edo hau egin gabe ere, Legea Epaiketa Kriminalari buruzkoaren 100.artikulua behar bezala idaztearekin emaitza berdina lortuko litzateke¹⁷.

Ildo honetan, zenbait irakaslek (eta gu beraiekin bat gatoz) bikoiztasuna mantentzearen alde eman dituzten arrazoiak gogorki kritikatzeko dituzte :

¹⁴ RUIZ VADILLO, “Responsabilidad civil”, *Comentarios a la legislación penal*, V, 3, Madrid, 1985, 364-365 orriak.

¹⁵ “En tono fuertemente combativo” adjektiboa erabiltzen du bere iritzia sendotzeko. Ikus PANTALEON, “*Perseverare diabolicum...*”, aip., 6.orrian.

¹⁶ Aurrerago aztertuko dugun bezala delitutik jaiotako erantzukizuna kontraz kanpoko erantzukizun gisa definitu daiteke.

¹⁷ LEKr. 100.artikuluaren egungo testuan akzio zibila delitutik edo hobenetik ere jaiotzeko daitekeela dio, baina egokiagoa litzateke horren ordez esango balu Auzitegi penalek delitu edo hoben ez diren jokaera kaltegarrietatik eratorzen diren erantzukizun zibilak epaitzeko eskumena dutela.

- Auzitegi penalek delitutik eratorritako erantzukizun zibilari buruz aritzeko eskumena izaten jarraitu behar dute, baina hori ziurtatzeak ez du esan nahi gaia bera Kode penalean jasota egon behar duenik.

Epaile penalek ez dituzte Kode penalean jasotako artikulua aplikatzen soilik eta zuri dauden lege penalen bitartez beste legeetara (hauen artean Kode zibila dugularik) igorri daitezke.

- Bestalde, Kode penaletik gai hau kentzeak legegilearen biktimarekiko kezka gutxitu dela pentsa arazi dezakeela diote zenbait pertsonak. Baina aurreko puntuan adierazi dugun gisa, egungo arauak ezabatzeak ez du prozedura penaletan ordain-sari bat galdatzearen aukera desagerrarazten. “Aldatuko litzaken gauza bakarra aplikagarriak diren arauen kode-kokalekua izango zen, zeinak izaeragatik dagokien Kodean egongo bailirateke”¹⁸.

Kaltetuak babesteko modurik egokiena Berma Fondo bat eraikitzea litzateke (jadanik Estatuan eta beste atzerriko herrialde askotan terrorismo delituen kaltetuei laguntzeko sortu denaren antzekoa), gutxienez doluz egindako delituen biktimei eragindako kalteak ordaintzeko erabili beharrekoa.

- Kode zibilaren kontratuz kanpoko erantzukizunari buruzko araudia zaharkitua gelditu da eta jurisprudentziak dagoeneko gainditu egin du, baina horrek ez du esan nahi artikulua huetara igorri behar ez denik. Funtsezkoena Kode zibilaren 1902-

¹⁸ PANTALEON, “*Perseverare diabolicum...*”, aip., 7. orria.

1910 eta 1092-1093 artikulua erreformatzea izango da, bertan Auzitegi Gorenaren, 1. eta 2. Salak emandako jurisprudentzia islatuz.

- Azkenik, gai honetan araudi zibila soilik aplikatuz gero Kode penalaren xedapen batzuk praktikan ez lirateke erabiliko baina emaitza hau negatiboa izan beharrean, zenbaitetan guztiz komenigarria azaltzen zaigu¹⁹.

Idea guzti hauek hausnartuz, beraz zera esango dugu: araudi bikoiztasunaren ondorioz uzi edo pretentsio bakar bat oinarritzen duten arau ezberdinen lehiaketa baten aurrean gaude, Zuzenbide Germanikoan Anspruchsnormenkonkurrenz deritzona. Hori dela eta, erantzukizun zibilari buruzko pretentsioa prozedura penalean egikaritu izan bada, egitate honek bere preskripzioa etengo du (15 urtetakoa), Kode zibilaren 1973. artikulua dioena aplikatuz. Lehiaketa hau egongo ez balitz, aldiz, eskaera zibila ez zen etengo prozesu penalaren hasieratik, besterik gabe eseki egingo litzateke, bigarren eskaera ez zelako kontutan hartuko²⁰.

¹⁹ PANTALEON, “*Perseverare diabolicum...*”, aip., 8-10 orriak.

²⁰ Preskripzioa eskubideen eta akzioen iraungitze mota bat da, beren tituludunaren egikaritzea ezagatik legeak ezarri duena eta beti ere, subjektu pasiboak bere aldetik eskubide edo akzio honen existentzia aitortu ez badu. Beraz preskripzioa ez da epe zehatz baten igarotze hutsa, KZ-ren 1961 art.k. dioen bezala, ezta denbora horretan eskubide edo akzioen egikaritze ezak eragindako fenomeno ere. beharrezkoa da elementu hauetaz gain harreman horretako subjektu pasiboak eskubide horren existentzia ez aitortzea. Horregatik doktrinan, preskripzioa harreman juridikoaren isiltasuna bezala definitzen da. Preskripzioaren etendura beraz, isiltasun honen haustea izango da.

KZ-ren 1973. art.k. dioenez preskripzioa bi eratara etengo da: 1.- auzitegien aurrean akzioak egikaritzeagatik edo epaitegietatik kanpo egindako erreklamazioagatik, 2.- subjektu pasiboak egindako erlazioaren existentziaren aitopenagatik. Etenduraren ondorioz garrantzitsuena preskripzioa amaitzen duela da, baina honek ez du eragozten gerora beste preskripzio epe berri bat martxan jartzea etendura egintza bukatzen denetik: egintza honen aurretik pasatako denborak ez du ezertarako balio eta preskripzio berri honen epeak osorik pasatu beharko du.

I.3. ZEHAPEN ZIBILAREN ETA PENALAREN ARTEKO EZBERDINTASUNAK

A. LEGEKONTRAKOTASUNA

Zuzenbide penalean, normalki, babesten diren ondasunak publikoak izaten dira, baina ez beti, hau da, batzutan eredu edo tipo penalek interes partikularrak babesten dituzte, jabetzaren kontrako delituetan gertatzen den bezala. Dena dela, azken kasu hauetan ere legeak, batez ere, jabetzaren kontrako portaeren gehikuntza ekidin nahi du, kaltetuen babesaren bigarren maila batean utziz²¹.

Garai historiko bakoitzean, legegileak "taldearentzat balio handiena duten baloreak babesteko aukera hartzen du"²². Balore hauek urratzen dituzten egitateak tipikoki legez kontrakoak dira²³ eta horregatik delitu edo hoben bezala kontsideratuko dira. Ez-zilegitasun zibila, berriz, legeak tipifikatu gabeko egitate kaltegarria besterik ez da. Ez da posible izango egitate hauen zerrenda bat legean aurrez ezartzea, erantzukizun zibila babesturik dagoen interes bat urratzen duen edozein jokabidetik eratorri daitekeelako²⁴.

Esekipena berriz, akzioaren erabilera ezinezkoa den garai batetan ematen da, eta une hau pasatakoan epeak zegoen lekutik jarraitzen du kontatzen.

²¹ ANGEL YAGÜEZ (*Tratado de responsabilidad*, aip., 50.orria) idazlearen iritziz, jabetza legegilearen ustetan gizartearen egitura ekonomikoaren zutabe da eta balore abstraktu bezala babesten da.

²² YZQUIERDO TOLSADA, *Responsabilidad civil*, aip., 32.orria.

²³ Lege kontrakoak dira legearen kontra doazelako eta tipikoak, egitate horiek legean espresuki aurreikusitako suposamen baten barne sailkatu daitezkeelako.

²⁴ YZQUIERDO TOLSADA autoreak (*Responsabilidad civil*, aip., 3.orria) dioenez ez da zuzena erantzukizun zibilari buruz aritzerakoan lege kontrakotasuna aipatzea, zeren kaltea

Laburbilduz, Zuzenbide penalean lege kontrakotasuna nullum crimen sine lege printzipioaren ondorio den heinean, zuzenbide zibilean alterum non laedere maximan oinarritzen da.

B. ERRUDUNTASUNA

Erruduntasun penalak galdatzen du epaitzen den portaerak destaina minimo bat merezi izatea, alegia, jokabideak nolabait ere destainagarria izan behar du. Zuzenbide zibilean ez da baldintza hau galdatzen, askotan gizartean guztiz onartuak diren portaerak ere zigortu egiten baitira²⁵.

Praktikan, ezberdintasun honek garrantzi handia izango du, Zuzenbide penala aplikatzeko ez baita beharrezko izango egintza ez-zilegiak kalterik eragitea, baina zuzenbide zibilera jotzeko berriz, derrigorrezkoa da egintza horrek galera bat sortzea nahiz eta bere izaera zilegia izan. Erantzukizun zibilik ez bada sortzen kalterik egon ez delako izango da baina ez egilea erruduna ez delako. Penalki egintza bat egozteko nahikoa da egilearen “borondatea benetan erruduna izatea, beti ere, berau kanpo munduan islatu bada”²⁶.

eragin duen egitatea zilegia bada ere, egileak galera hori konpondu beharko baitu. Adibidez auto gidari batek pertsona bat harrapatzen badu ordainsaria beti pagatu beharko du, nahiz eta istripua frenoak hautsi direlako gertatu. Eta gauza bera gertatuko da finka bat erretzen denean, hegazkin istripu baten ondorioz. Nekazariak indemnizazioa eskatzeko eskubidea izango du.

²⁵ Aire Garraio Legeak, adibidez, kalte-ordaina pagatu beharra galdatzen du “garraio-egileak, operatzaileak edo haren langileek behar hainbateko diligentziaz ihardun dutela frogatzen badute ere”.

²⁶ YZQUIERDO TOLSADA, *Responsabilidad civil*, aip., 33.orria.

Hori dela eta, prozesu penalean epaitutako egitateetan eskuartu duten elementu subjektibo eta pertsonal guztiak hartuko dira kontutan, eta Kalte Zuzenbidean salbuetsiak izango dira, epaiketa datu objektibo eta abstraktuetan bakarrik oinarritzen delako.

C. ONDORIOAK

Lehenik eta behin, erantzukizun penalean ez da beharrezko izango kalte materialik egotea. Horregatik saiakera graduko delituetan, droga trafikokoetan, arma edukitzea ez-zilegizkoetan, e.a. erantzukizun penala ematen dela egiaztatu daiteke, baina ez zibila, kalterik sortzen ez baitute.

Halaber, ordena penalean ezin da pertsona bat zehatu, honek azaldutako portaera aurrez arau batetan jaso ez bada, alderantzizko kasuan epaile zibilak kasu bakoitzean askatasun handiz erabakiko du: analogia zein interpretazio hedatzailea ere erabiltzeko ahalmena baitu.

Aztertu dugun guztiaren ondorioz, hobe da arlo zibilean zuzenki “erantzuleez” hitz egin beharrean “erantzukizuna jasaten duten ondareei buruz” mintzatzea, azken batean hori baita gertatzen dena: ordaintzera behartua dagoen subjektua ez da beti kaltea eragin duen subjektua izango baina, hala ere, bere ondareak gutxitze bat jasango du, kalte-ordainaz erantzun beharko du eta.

Bukatzeko esan ezingo dela kontutan hartu kaltetuaren jarrerak kaltearen sorreran zerikusia izan badu ere egile zuzenaren erantzukizun penala ezartzerakoan, baina ordain-sariaren zenbatekoa kalkulatzekoan aintzat hartuko da²⁷. Pertsona baten erantzukizun penala ez da beste batenarekin konpentsatuko, baina ondorio ekonomikoak arintzeko balioko du²⁸.

I.4. SENTENTZIA PENALAREN ERAGINA EBAZPEN ZIBILAREKIKO

Sententzia penal zigortzaileak, akzio erreserba espresa egin denean, epaile zibila nolabait ere lotzen du delitu egilearen erruduntasuna eta egintzaren lege kontrakotasuna ezartzen baititu, baina gainontzeko gaiekikoa epaile zibilak askatasun osoz jardungo du: esate baterako erantzukizun zibilaren quantum ezberdin bat finka dezake eta beste erantzule zibil batzuk ere izendatu ditzake. Sententzia penala absoluziozkoa izan arren, bestalde, Auzitegi zibilak egintzak berriro ere epaitu ditzake ez-zilegitasun zibila eman den ala ez aztertzeko. Auzitegi Goreneko 1. Salak 1989ko ekainak 9ko sententzian dioen bezala “sententzia penalek ez dituzte epaile zibilak lotesten, eta ez dute aurrepaituko azken hauek egitateekiko egin dezaketen balorazioa”.

²⁷ Kode penaleko 114.artikuluak dioen bezala “biktimak bere jokabidearekin kaltea eragiten lagundu badu, Epaile edo Auzitegiek bere kalte-ordainaren edo indemnizazioaren zenbatekoa mugatu dezakete”.

²⁸ Auzitegi Gorenak ez du irizpide hau jarraitu praktikan, bereziki, zuhurgabezia zigorgarrien kasuak aztertzerakoan. Horregatik, zenbait suposatutan zuhurgabezi temerarioaren izaera aldatu egiten da eta zuhurgabezi sinpletzat jotzen da, adibidez, kontrako autoaren gidariak ere zuhurgabeziaz jokatu duelako: ikus Auzitegi Gorenaren sententziak (2. Sala), besteak beste, 1987/XII/30, 1989/VII/16 eta 1989/X/25.

Halaber, akzio zibilaren erreserba espresurik egin ezean, sententzia zigortzaile penalak delitu zehatz horretatik eratorzen den erantzukizun zibilaren zenbatekoa adieraziko du. Kasu honetan, bigarren sententzia zibil bat ere posible izango da, lehenengoaren osagarria izango dena, non sententzia penalak kontutan hartu ezin izan dituen egitateak aztertuko baitira. Baina urrunago ere joan gaitzke: Legea Epaiketa Kriminalari buruzkoaren 108. artikulua aztertuz gero, Ministerio fiskalak edo kaltetuak lehenengo prozesuan akzio zibila egikaritu ez badu ere (eta noski, berau espresuki erreserbatu ez duenean), ekintza falta hau ez da uko egite isilbidezkotzat hartuko eta ondorioz subjektu horiek Auzitegi zibilen aurrean gai horrekiko prozesu berri bat tarteratzeko gaitasuna izango dute²⁹. LACRUZ autorearen iritziz, aldiz, sententzia penala zigortzailea denean delitutik eratorritako arazo zibil guztiak behin-betiko erabakiak geldituko dira (kalte-ordainen akzioa erreserbatu ez denean behintzat) eta ezingo dira berriro ere beste prozedura batean aztertu.

Arlo honetan bigarren arazo bat ere planteatzen da prozesu penalaren lehentasunari buruzkoa. Auzitegi Gorenak sarritan aipatu izan du beharrezkoa dela akzio zibilaren aurrean prozesu penalarik lehentasuna ematea³⁰, alderantzizkoa ezinezkotzat jo duelarik.

²⁹ PANTALEON, "Comentario al artículo 1902", *Comentario del Código civil*, aip.,

³⁰ Lehenengo garai batean Auzitegi Gorenaren 1. Salak 1986/X/28, 2987/III/23 eta 1987/X/11 sententzietan interesdunak lehenengo akzio zibila tarteratzeko aukera zuela onartu zuen, baina 1988 urtetik aurrera auzitegiaren iritzia aldatu egin da, eta egitate zigorgarriak, zehazki, desakatu bezala tipifikatuak, alegia kargu publikodun pertsonak egindakoak direnean, lehenik alor penalean epaituak izan behar dutela adierazi du, bide zibilean tarteratutako aurre-eskakizuna deuseza izango delarik (ikus Auzitegi Gorenaren, 1. Salaren sententziak: 1988/XI/11, 1989/I/27, 1989/II/23, 1989/X/11 eta 1991/XI/14).

Auzitegi Konstituzionalak, sententzia 241/1991ko abenduak 16koan, eztabaida honi bukaera eman dio, Auzitegi Gorenaren 1. Salaren 1989ko otsailak 23ko sententzia deuseza deklaratu baitu. Bertan esaten zaigunez “aurkatutako sententziak arau aplikagarria interpretatu du Konstituzioko 24.1 artikuluan jasotako babes judizial eraginkorra lortzeko eskubidea gutxien faboratzen duen eta hertsiena den zentzuan, eta azken finean, beraz, elegiadunaren ohore, intimitate eta imajina eskubideena ere; honekin aipatutako eskubideen babes zibilaren ahultzea edo mugatzea eragiten delarik bide penalari lehentasuna emanez; ordena penala burutzen duen eskuartze minimo printzipioaren aurka joanez eta konstituzionalki onartezina den funtsezko eskubideak urratzen dituelarik (kaltetutakoak lehenengo bide penal guztia ibili beharko du, gero berriro ere zibilari hasera emateko)”.

LOPEZ JACOISTEK sententzia honetan esaten dena oinarritzat hartuz eta, bereziki, erantzukizun zibilaren izaera kontutan izanda, zera ondorioztatzen du “kontratuz kanpoko erantzukizuna pertsonen harreman-eremua konpontzeko edo berregiteko balio du, baina eremu hori giza duintasun beraren isla denez, dagozkion akzio zibilek berezko garrantzia dute, inolako mendetasunik jasan beharrik gabe. Elkarrenganako errespetuaren eta bake sozialaren bide dira”³¹.

³¹ LOPEZ JACOISTE, *Transformaciones y paradojas...*, cit., pág. 24.

I.5. ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ASEGURUA KALTETUAREN BABES INSTRUMENTU

Kalte baten egileak, besterik ez bada ere, beti erantzun beharko du bere ondarearekin eragindako galeren aurrean, eta horregatik “segurtasun falta” honi aurre egiteko Aseguruaren instrumentua sortu da Zuzenbidean. Erakunde hau kalte egileak sortarazitako erantzukizun zibilaren ordezkoa izango da, baina bertan bi kalte mota hartzen dira kontutan: bata asegurdunak bere egintzarekin kaltetuaren ondarean eragin duena eta bestea kalte-ordaina pagatu beharrak asegurdunaren ondarean sortarazten duena.

Erantzukizun zibilaren bitartez, kaltearen zenbatekoa egilearen ondareari jasan arazten bazaio, aseguru kontratuak zama hori asegurdunaren ondaretik aseguratzailearena pasatzen du. Legeak, derrigorrezko aseguruaren kasuan, eta borondatearen autonomiak borondatezko aseguruetan, kaltetuaren esku uzten dute elkarte aseguratzailearen kontra joateko akzio zuzen bat³², zeinaren bidez azken honek indemnizazio obligazioa zuzenean bete beharko baitu, honela kaltearen konponketa azkartzen delarik³³.

³² Ikus gai honi buruz Auzitegi Gorenaren, 2. Salaren, hurrengo sententzia hauek: besteak beste, 1980/X/23, 1984/III/4, 1987/X/28, 1988/II/22, 1989/XII/4, 1990/XII/11 eta 1991/X/7.

³³ Kaltetuak aseguratzailearen kontrako akzio zuzenik izango ez balu, lehenik asegurdunaren aurka joan beharko luke eta gero honek bere elkarte aseguratzaileari eskatu beharko lioke konponketari aurre egitea. Bidea beraz konplikatu egiten da eta ordainsaria jasotzerako denbora asko igaroko litzateke. Aipatutako akzio hau lehenengoz 1962ko abenduak 24ko Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Erabilerari buruzko Legean onartu zen eta ikusi dugun bezala berrikuntza aipagarria izan zen.

Derrigorrezko aseguria aztertzerakoan legearen kontraesan garbi bat topatzen dugu: alde batetik Aseguru Elkartek erantzule zuzen bezala agertzen zaizkigu, baina bestetik ez zaie Elkarte hauei onartzen alderdi izaera propiorik prozesu penalean³⁴. Auzitegi Konstituzionalak, sententzia 4/1982ko otsailak 8koan, arazo hau aztertu du: bertan aditzera ematen zaigunez legeak onartzen die Aseguru Elkarteei legitimazioa prozesu penalean bere burua defendatzeko baina soilik sumario faserako non indemnizazio beharraren nahiz aseguru kontratuaren existentzia eta hedadura aztertzen baitziren, eta orduan izango dute aukera elkarteek beren erantzukizuna mugatzeko edo gaitzesteko. Dena dela, elkarte hauek ez dira inoiz ere hirugarrengo kaltetu bezala kontsideratuko, kontratu edo lege bidezko erantzule “soilak” baizik. Ideia hau geroago ere Auzitegi Konstituzionalaren beste sententzia batzutan jaso izan da, hala nola, sententzia 48/1984, apirilak 4koa; 43/1989, otsailak 20koa eta 57/1991, martxoak 14koa.

Borondatezko Aseguruen kasuan ez da honelako arazorik planteatzen. Legea 30/1995, azaroak 8koak, Aseguru Pribatuen Gainbegiratze eta Ordenazioari buruzkoak, aurreikusten duenez kaltea egilearen doluzko egintza baten ondorioz sortutakoa denean aseguratzailerak asegurudunaren aurkako errepikapen eskubidea izango du³⁵. Hori dela eta, Kode penalean espresuki ezartzen du

³⁴ SOTO NIETO, F., “La acción directa contra el asegurador en el proceso penal por hechos imprudentes”, *La Ley*, 10 de diciembre de 1993, 3.orrian adierazten duen bezala.

³⁵ “Elkarrenganako obligazio bat ezartzen duen kontratuaren betepena alderdikide batek bakarrik galdatu dezake” dio SOTO NIETOk (“La acción directa contra...”, aip., 6 orria), ondorioz, eskubide hori onartzen bazaie aseguratzailerai alderdi prozesal izaera dutelako izango da.

kaltetuak aseguratzaileari zuzenean ordainsaria galdatzeko posibilitatea duela³⁶, eta akzio hau gainera ordena zibilean zein penalean erabili ahal izango du. Prozesuan aseguratzaileak erantzule zibilaren lekua beteko du eta bere erantzukizunari buruzko gorabehera guztietan benetako alderdi prozesal gisa eskuartuko du³⁷.

Nolanahi ere, aseguratzailearen eta asegurudunaren artean sortzen den harremanak izaera solidarioa izango du, honela kaltetuak bataren nahiz bestearen kontra joateko aukera izango duelarik. Izaera honek bigarren ondorio bat ere eragiten du, litiskontsortzio pasibo beharrezkoa³⁸ salbuesten baitu Kode zibilaren 1144 artikulua dioenaren arabera³⁹.

Bukatzeko aipatu beharra dago aseguratzaileak ordaintzeko obligazioa izango duela bakarrik aseguruduna prozesu penal edo zibilean pagatzera zigortua izan denean eta aseguru polizan ezarritako kantitateraino⁴⁰.

I.6. ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ETA PENALAREN ARTEKO HURBILKETA

³⁶ Kode penalak hala dio 117.artikuluan: “Aseguratzaileak (...) erantzule zibil zuzenak izango dira legalki edo hitzarmen bitartez aurreikusitako indemnizazioaren baliora arte, beti ere errepikapen eskubidea izango dutelarik”.

³⁷ Ikus, Auzitegi Gorenaren 2. Salaren sententzia hauek: 1984/X/5, 1985/IV/26, 1986/XII,20, 1987/IX/21, 1988/V/10, 1989/XII/1 eta 1991/X/11.

³⁸ Litiskontsortzio pasibo beharrezkoa emango balitz kaltetuak aseguratzailea eta aseguruduna (biak, ez bata ala bestea) demandatu beharko lituzke nahi eta nahi ez, eta honela egingo ez balu prozesuak ez luke aurrera egingo akats formal bat legokeelako.

³⁹ Arazo hau aurrerago aztertuko dugu sakonago.

⁴⁰ Beraz, sententzian kopuru handiagoa ezarri denean gainontzekoa asegurudunak ordaindu beharko du. Aseguratzailearen erantzukizun zibila mugatua da.

Kode penalak 263-267 artikuluetan ondasunen gain eragindako kalte-delitu zuhurgabeziak arautzen ditu eta honek arazo berri bat planteatuko digu zeren kalte material bat ematen den guztian zein araudi (zibila edo penala) aplikatu behar den erabaki beharko da eta.

FERRANDIS VILELLA autoreak araudi zehatz hauek sakonki aztertu eta gero “ondorio ezusteko batetara iristen da, azterketa hori egin ondoren garbi ikusten baita ez dela posible egintza edo omisio ez-zilegi batek eragindako kalte bat egotea zehapen penal bat sortarazten ez duenik”⁴¹.

Hala ere, jurisprudenziaren ustetan kalte-delituak doluz egindakoak direnean bakarrik zigortu daitezke penalki. Zuhurgabetasunaren ondorio direnean ez dira ordena penalean zehatuko, salbuespen bakar batekin: delitu hauetan kalte materiala emateaz gain pertsonen heriotza edo lesioak eragiten bazaizkie orduan epaile penalak beharrezko neurriak hartuko ditu⁴². Baina kasu hauetatik kanpo, ondarezko kalteak epaitzea epaile zibilen lana izango da, sortutako erantzukizuna zibila delako, nahiz eta, teorikoki bada ere, posible izan erruaren ondoriozko kalte bat ordena penalean epaitzea.

Lege Organikoak 3/1989, ekainak 21ekoak, Kode penala erreformatzen zuenak, gai honetan zenbait aldaketa sartu zituen, bereziki, erregelamendurik

⁴¹ Ikus FERRANDIS VILELLA, “Una revisión crítica de la clasificación de fuentes de las obligaciones”, *ADC*, 1958, 28 eta ond. orriak.

⁴² Bereziki hiru sententzietan garbi ikusten da irizpide hau jarraitu dela: Auzitegi Gorenaren, 2. Salaren, sententzia 1976/XI/19, 1985/III/29 eta 1985/IV/12.

urratu gabe zuhurgabetasun sinplez sortutako kalteak eta erregelamenduak urratuz egindakoak (kasu honetan Derrigorrezko Aseguruak estaltzen duen kopurua baino txikiagoak badira) despenalizatu egin ziren, alegia, beraien zehapena Kode penaletik kanpo geratu zen⁴³.

Beraz, teorian behintzat, Derrigorrezko Aseguruak estaltzen duen diru-kopurua baino handiagokoak diren kalteak eta erregelamenduak urratuz egindakoak, zuhurgabetasun temerario edo sinple bitartez, eskumen penalean epaituak izan daitezke kaltetuak egitateak salatzen baditu.

Erantzukizun zibil gaiarekiko, Zuzenbide penalaren eta zibilaren artean ematen ari den hurbilketa garbi adierazten duen bigarren elementu bat zehapen penalaren objektibizazioa da. "Sistema subjektibista batetik, non erantzukizunaren oinarritzko elementua errua baita; beste sistema batera pasatzen ari gara non protagonista izango diren sortutako kalteak eta hura edonola ere konpontzeko nahia, erruduntasuna kontutan hartu gabe"⁴⁴ arlo zibilean gertatu denaren antzera. Irizpide berri hau, batik bat, Kode penalean azken bolada honetan sartutako delitu berrietan antzematen da, ingurugiroaren kontrako delituetan, lan-segurtasunaren aurkakoetan, kontsumitzaileen kontrakoak ... Gaur egun, beraz, erantzukizun zibilaren "sozializazio" edo "objektibizazio" fenomenoaren aurrean gaude.

⁴³ Hilabete gutxi dela indarrean sartu den kode penal berriak ere despenalizazio hauek mantendu ditu.

⁴⁴ YZQUIERDO TOLSADA-ren hitzak dira (*La responsabilidad civil...*, aip., 42 orria).

II.- ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ARAUDIA KODE PENALEAN

Aurrerago ere aipatu dugun bezala, Kode penaleko 118. artikulua erantzukizun penala ematen ez den kasuetan (egitate horietan salbuespen zio bat azaldu delako) baina erantzukizun zibila sortu denetan (kalte bat eragin delako), aplikatu beharreko erregimena ezartzen du. Bereziki, ordezeko erantzuleen figura arautzen du, alegia, zuzenki erantzulea den pertsonak obligazio horri ezin dionean aurre egin, haren lekua beteko duen subjektuaren existentzia aurreikusten da (adin txikikoen kasuan guraso edo tutoreek, e.a.).

RUIZ VADILLO autoreak gai honetan Lege Organikoa 8/1983, ekainak 25ekoak sartutako erreforma kritikatzeko du⁴⁵, lege honek Kode zaharreko 20. Artikuluari paragrafo akastun berri bat erantsi ziolako, eta gezurra badirudi ere, hamahiru urte geroago Kode penal berria egiterakoan legegilea ez da gauza izan akats hau konpontzeko, 20. Artikulu zaharraren azken paragrafoa egungo 119. Artikuluan inolako aldaketarik gabe jaso baitu. Testu horretan adierazten denez epaileak salbuespenezko zio bat dagoelako sententzia absolbatzaile bat ematen duen guztian egoki diren ondori zibilak ezarri beharko ditu, baina agindu honek suposatutako asko mugatzen ditu, era honetako kasu gehienak (besterendu, adin txikiko eta alterazio larriak dituzten pertsonen buruzko kasuak) auto bitartez

⁴⁵ RUIZ VADILLOk dioenez (“Responsabilidad civil”, aip., 364-365 orriak) “nolanahi ere, eta datu aipagarri bezala, esan beharrean aurkitzen naiz eta lotsagarria da gainera, nire bizitza judizial guztian ordena penalean 25 urtetik gorakoa dena, ez dudala sekula 20.artikulu aplikatzen ikusi, puntu honetan (...) Zuzenbide penal substantiboaren eta prozesalaren artean dagoen armonia faltagatik, eta akaso legeak aplikatu behar ditugunok ez dugulako behar hainbateko ahaleginik egin arauak efikazia printzipioetara egokitzeko, beti ere legea errespetatuz”.

amaitzen direlako eta ez sententzia absolbatzaile bitartez, lege prozesalak hala galdatzen duelako. Honen ondorioz, epaileak ezingo du erantzukizun zibilak ezarri eta kaltetuak ez du ordainsaririk jasoko.

118. Artikulua aztertzerakoan bigarren arazo bat ere azaltzen zaigu, bertan galdatzen diren ukan beharrak ez direlako bat etortzen Kode zibilean kasu berdinerako ezarritakoekin. Auzitegi zibil batek delitu edo hoben batetik eratorritako erantzukizun zibilari buruz erabaki behar duenean, Kode penaleko xedapenak aplikatu beharko ditu Kode zibileko 1092. Artikuluak hala galdatzen duelako⁴⁶. Baina behin-behineko sobreseimentu bat erabaki denean (LEKr. 641 art.) eta alderdiak eskumen zibilera zuzentzen direnean, epaile zibilak Kode zibileko 1902 eta ondorengo artikuluak aplikatzeko aukera izango du (legedi horretako 1093. Artikuluak dioena jarraituz) epaile honek ez baitu eskuduntzarik epaitzen dituen egitateak delitu edo hoben direla esateko; bai ordea, erru edo axolagabekeriarik egon dela adierazteko⁴⁷.

Bi kasutan egitateak berdinak badira ere, emaitzak oso ezberdinak izango dira. Kode penaleko artikuluak aplikatzen badira, guraso eta zaintzaileen erantzukizun subsidiarioa ezartzeko beharrezkoa izango da lehenik, pertsona hauen jokabidean errua edo axolagabekeria egon dela frogatzea. Kode zibilaren 1903. Artikulua jarraitzen bada berriz, frogaren zama alderantzizkoa da, gurasoek

⁴⁶ Kode zibilaren 1092. artikulua: delitu edo hobenetatik eratorritako obligazio zibilak, Kode penaleko xedapenen bitartez arautuko dira.

⁴⁷ Kode zibilaren 1093. artikulua: Legeak zigortzen ez dituen erru edo axolagabekerien ondoriozko agintza edo omisioetatik eratorritako (obligazioak), IV. Liburuko XVI. Tituluko II. Atalean azaltzen diren xedapenen menpe geldituko dira.

eta zaintzaileek frogatu beharko dute eta “kaltea ekidite arren, familia-buru on baten diligentziaz ihardun dutela”.

Doktrinaren iritziz⁴⁸ oso larria da bide bakoitzetik joanez hain emaitza ezberdinak lortzea eta horregatik, araudiaren berdinketa galdatzen dute delitutik eratorritako erantzukizun zibila eta egintza edo omisio ez-doluzko baten ondorioz ezarritakoa berdinak izan daitezzen, bai eduki eta hedadura aldetik baita guraso, tutore, enpresari, eskola zuzendari eta abarren ordezeko erantzukizuna ezartzerakoan.

120. Artikuluak pertsona natural edo juridikoen erantzukizun zibila arautzen du azken hauen denda nahiz enpresatan, polizia erregelamenduak urratu direnean, edo beren titulartasuneko aldizkari, telebista edo gainontzeko komunikabideak delitu edo hoben bat egiteko erabiltzen direnean. Baina, batez ere, 4. Paragrafoa izango da garrantzitsua enpresa munduan, bertan enpresarien edo pertsona juridikoen gestoreen ekonomikoki erantzun beharra jasotzen baita. Hala da, artikulu honetan irakurri daitekeenez “erantzule zibilak izango dira ere, kriminalki direnen ordezkari: (...)4. Edozein motako industrian edo merkataritzan diharduten pertsona naturalak edo juridikoak, beren menpekoek nahiz langileek, ordezkariak edo gestoreak dagozkien zerbitzuak betetzerakoan egindako delituengatik edo hobenengatik”⁴⁹.

⁴⁸ Gai honetan oso esanguratsuak dira RUIZ VADILLOren lanak: “Responsabilidad civil”, aip., 360 orria eta “Un supuesto de condena de un empresario al amparo del artículo 1903 del Código civil, sin estar individualizado el conductor causante del accidente automovilístico”, *Rev. Der. Cir.*, 6 zbkia, 1975.

⁴⁹ Kode penal berriak zenbait ezberdintasun sartu ditu gai honen araudian, aipagarriena

Kode zibilaren 1903. IV. Artikuluak, bestalde, enpresa edo lantoki bateko zuzendarien eta jabeen erantzukizun zibila berresten du, beren langileek dagozkien funtzioak betetzerakoan eragindako kalteengatik⁵⁰. Pertsona hauen erantzukizuna desagertu egingo da familia-buru on baten diligentziaz ihardun dutela frogatzen badute⁵¹.

Eta 1904 artikuluak gehitzen du: “menpekoek egindako kalteengatik ordaintzen duenak haiei ordaindutakoa itzultzeko eska diezaieke”. Errepikapena galdatzeko ahalmen hau Kode penaleko 119. Artikuluan ere jasotzen da.

Hemen ere araudi bikoiztasunak zenbait arazo planteatzen ditu: Kode zibilak enpresariaren diligentzia frogatzea ahalmentzen du baina Kode penalak ez du azken neurri hau onartzen, ondorioz lehenengo kasuan xedapen zibilak enpresaria erruduntzat jotzen du eta beraz erantzule zuzena⁵² izango da eta araudi

lehenagoko 21.artikuluko azken paragrafoaren desematea izan da. Paragrafo horretan enpresariaren erantzukizuna jasotzen zen beren lokaletan gertatutako lapurretengatik: horretarako bi baldintza galdatzen ziren, lapurtutako gauza lokal horretan gordea zegoela jakinarazi behar zitzaion aurrez tokiko arduradunari eta indarkeria erabiliz egindakoa izanez gero, lapurrak bertako langile izan behar zuen. Dena dela, hasieran esan dugun bezala paragrafo hau ez da egungo Koderara pasa eta ondorioz enpresariaren erantzukizunak nolabaiteko gutxitzea jasan du. (Praktikan xedapen honek arazo asko planteatu zituen eta sententzia ugari daude gai honi buruzkoak. Ikus, besterik beste, Auzitegi Gorenaren, 1. Salaren, sententzia 1994ko urtarrilak 27koa.

⁵⁰ Kode zibilaren 1903. V artikuluak (artikulu hau Legea 1/1991, urtarrilak 7koak erreformatu zuen), berriz, eskolako zuzendari edo arduradunen ordezkio erantzukizuna aipatzen du, adin txikiko ikasleek beren ardurapean dauden bitartean egindako kalteengatik.

⁵¹ Gogoratu gorago esandakoa.

⁵² Langileak sortutako kaltearen eta enpresariaren diligentziaren artean dagoen loturaren ondoriozko erantzukizuna zuzena da. Azken honen erantzukizuna *in vigilando* edo *in eligendo* errutik eratortzen da (Ikus YZQUIERDO TOLSADA, *La Responsabilidad civil*,

penalarentzat, berriz, erantzule ordezkoa eta objektiboa izango da⁵³. Xedapen zibila gogorragoa da enpresaria beste batek eragindako kaltearen erantzule zuzen izendatzen baitu, baina kontrakoa frogatzea onartzen du Zuzenbide penalak ez bezala, non enpresaria beti ordezko erantzulea izango baita. Dena dela, beti ere ezusteko kasu bat egon dela edo bere diligentzia absolutua izan dela aurkatu daiteke eta, hau ere ezinezkoa bada, azken irtenbidea langileari ordaindutakoa bueltan eskatzea izango da.

Berrito ere, egintza hauen aurrean lehenago aipatutakoa errepikatu behar dugu: onartezina da arau bikoiztasun hau bi erantzukizunen oinarria berdina delako, eta azken batean biak egitate berdin baten bi aldeak besterik ez direlako. GARCIA GOYENAK⁵⁴ dagoeneko bere iradokietan bi araudien arteko kontraesanak aipatu zituen eta Kode zibilean jasotako erantzukizunaren ordezko izaera defendatu zuen “ezin baitu zuhurgabetasun edo erru sinpletik eratorritako erantzukizunak, hoben edo delitutik eratorritakoa baino larriagoa izan”.

Guzti honetatik ondorioztatu genezake enpresa edo pertsona juridikoa, bere administratzaileek eta langileek egindako delitu eta hobenen kasuan, ordezko

aip., 63. orria).

⁵³ YZQUIERDO TOLSADAK (*La responsabilidad civil*, aip., 63.orria) dioenez “bezeroak enpresa zehatz batengana jotzen badu, enpresariak haren aurrean erantzun beharko du ez bakarrik harreman horietan dolu, erru, zuhurgabetasun edo mora egon denean, baizik eta edozein eratarra ere (kasu honetan era hori laguntzaileen bitartez aritzea izango da) obligazioan aurreikusitakoa bete ez delako”.

⁵⁴ GARCIA GOYENA, F., *Concordancias, motivos y otros comentarios*, Zaragoza, 1975 (reimp.), 572.orria.

erantzule zibila izango dela, gerora erantzule zuzenari ordaindutakoaren itzulpena eskatzeko ahalmena izango badu ere.

II.1. ERANTZUKIZUN ZIBILAREN EDUKIA

Gure lanaren ariarekin jarraituz, eta erakundearen izaera eta berezitasunak aztertu ondoren, orain delitutik eratorritako erantzukizun zibilaren edukiari buruz hitz egin behar dugu. Eginkizun horretarako Kode penaleko artikuluetara joko dugu berriro ere, txanda honetan, 110-115 artikuluetan jasota azalduko zaigu gai zehatz hau: “erantzukizun zibilaren barne sartzen dira: 1. Itzulketa, 2. Kaltearen konponketa, 3. Kalte material eta moralen ordainsaria (110. Art.)”. Ikus dezagun elementu bakoitza banan-banan.

Lehenik eta behin, posible den kasu guztietan kaltetuari kendutako ondasun berdina itzuliko zaio, izan ditzaken narriadurak ordainduko zaizkiolarik. Ondasun hori hirugarren pertsona baten esku egon arren benetako jabeari itzuliko zaio, nahiz eta jabe berriak legea errespetatuz eta fede onez eskuratu izan objektua⁵⁵. Kasu honetan, jakina, azken honek saltzailearen kontrako errepikapen eskubidea izango du eta, batzutan, delituaren erantzule zibilak indemnizatu egin beharko du.

⁵⁵ Legeak berak salbuespen bat arautzen du: ondasunak aldarrika ezinak bihurtu badira ez zaizkio jabeari itzuliko. Dakigunez gauza bat aldarrikaezina izango da 1955 edo 1956.artikuluko baldintzak bete direnean: ondasun higigarriak hiru urtetan fedez onez edukitzen direnean (edo sei urtetan beste ukan beharrik gabe) preskripzioz edukitzailearen jabetzara pasatzen dira. Lapurtutako ondasunak preskripzioz eskuratzeko beharrezkoa izango da lehenik hobena zein delitua, edo haren zigorra eta erantzukizun zibila proskribaturik egotea. Gainera 464.artikuluak galdutako ondasunen edo era ez-zilegian kendutako aldarrikagarritasuna aitortzen du.

Bestalde, artikulu honetan erabiltzen den "itzulketa" kontzeptuaren esanahia behar bezala hausnartzen badugu ohartuko gara termino honekin ez dela soilik ondasunaren bueltatze materiala aipatzen, delitua gertatu aurretik gauzak zeuden hartara eraman nahi dira (eraikitako elementuak lurreratu e.a.).

Bigarren osagaia, esan bezala, konponketa izango da. Berau kaltearen izaeraren arabera zehaztuko da eta egite, ez-egite edo emate obligazio bat izan daiteke. Kodeak dioenez, bestalde, errudunaren baldintza pertsonalak eta materialak kontutan izango dira obligazio hauek errudunak pertsonalki bete behar dituen ala beste batek haren kargu egin ditzaken erabakitzeko(112 art.).

Bukatzeko, eta kalte-ordainari buruzko datu batzuk aipatuko ditugu. Indemnizazio edo kalte-ordainak kaltetuari eragindako galera materialak eta moralak ase beharko ditu, baita haren familia edo hirugarren pertsona bati sortarazitakoak ere (113. Art.). Mota honetako ordainketak egintza ez-zilegiaren ondorioak diru-kantitate egoki baten bitartez konpontzeko xedea dauka eta horregatik, bi eratako kalteak bereizten dira eremu honetan: ondarezkoak eta ondarezkoak ez direnak. Jakina lehenengo kasuan ondarearen gutxitze bat emango da, egon diren galerak nahiz lortu ez diren onurak kontutan hartzen direlarik (adibidez, gaixotasun gastuak eta lan-ekimena esekitzeagatik irabazi ez den diru-kopurua). Ondarezko izaera ez duten kalteak (moralak, beraz), aldiz, sufrimendu fisiko, psikiko eta galera sozialak erantzutera zuzenduko dira eta ez dute galera horren hainbatekoa den diru kantitate bat suposatzen, sufritutakoa kitatzea dute helburutzat. Adibidez, kalte morala konpontzeko modu berezi bat gaitzespen sententziaren publikazioa izango da.

Azkenik, kalte materialak zein moralak ordaingarriak izan daitezen derrigorrez delituaren eta hauen artean kausalitate erlazio batek existitu beharko du, erlazio zuzenik galdatzen ez bada ere (nahikoa izango da zeharkako kausalitate lotura bat egon dela frogatzea).

II.2. ERANTZULE ANIZTASUNA

Delitu edo hutsegite baten erantzule zibilak bi edo gehiago direnean, Auzitegiek adieraziko dute bakoitzaren kuota eta honen arabera erantzun beharko dute (KP 116. art.). Alabaina, egile, konplize eta estaltzaileek, bakoitzak berari dagokion motan, solidarioki erantzule dira beraien kuotengatik, eta subsidiarioki gainontzeko kategoriei dagozkienengatik: lehenengo egileen ondasunak erantzuten dute, gero konplizeenak, eta azkenik, estaltzaileenak. Ordaindutakoaren errepikapen-ahalmena babesturik geratzen da (KP 116. art. 2. paragrafoa).

Kode Zibileko 1137. artikulua solidaritatearen presuntzio ezaren printzipioa hartzen du. Egintza ez-zilegi batetik sortutako obligazioei dagokionez berriz, ez da ezer esaten sorturiko erantzukizunaren izaerari buruz. Ondorioz, kontsidera genezake, kasu honetan ere, erantzukizun mankomunatu⁵⁶ baten aurrean aurkitzen garela. Baina gehiengoaren doktrina eta jurisprudentzia aurkako tesiaren alde azaltzen dira, hau da, solidaritatearen alde⁵⁶.

Tesi honen alde erabilitako argudioak ondorengo hauek dira:

- KZ 1137 artikulua barne bildutako solidaritate-eza presuntzioa, soilik kontratuzko obligazioetara hedatzen da.

⁵⁶ Ikus GUILARTE ZAPATERO, V., "Comentarios a los artículos 1137 a 1140", *Comentarios al Código civil y Compilaciones forales*, ALBALADEJOk zuzen., XV, Madrid, 1983, 233.orria.

- KP 116. artikulua xedatzen duenarekin duen analogia (eginkideen solidaritatea inposatzen du, aipatu dugun bezala), bi erantzukizunak berdinak baitira⁵⁷.
- Solidaritateak ordainketa hobeto aseguratzen du eta kreditu guztiak babestu behar badira, are gehiago kalte bat sortzetik jaiotzen den obligazioa.
- Egintza ez-zilegi bat burutzen parte hartu dutenak, kalte osoaren erantzunkide dira, bere jokaerak bakarrik ere ondorio hori osotasunean eragiteko gauza da eta.
- Solidaritatea, zenbait kasutan (orain tratatzen duguna adibidez), legeak edo partikularren borondateak ezartzen ez badu ere, obligazio beraren izaeratik eratortzen da.

Aurrekoaren aurka zera aipatu izan da⁵⁸:

- 1137 artikuluko presuntzioa aplikagarri da bai kontratuzko obligazioei baita kontratuz kanpokoei ere.

⁵⁷ Gogoratu I.1 epigrafean esandakoa. Gainera SANTOS BRIZ (*La responsabilidad civil*, Madrid, 1981, 421 eta ond.orriak) autoreak defendatzen du “xedapenaren aplikazioa (...) penalak ez diren egintza ez-zilegietatik eratorritako erantzukizun zibilen kausan ez da zalantzan jarri behar, erantzukizuna sortarazten duten egintzak penalen talde berdinekoak baitira, alegia, egintza ez-zilegi orokorren mailan sailkatzen baitira eta ez dago arrazoirik hauei ere xedapen berdina ez aplikatzeko”.

⁵⁸ Erantzukizun zibilaren izaera solidarioaren kontrako autoreen artean, besteak beste, ALBALADEJO, TRAVIESAS eta DIAZ PAIRO nabarmentzen dira.

- Irizpide analogikoaren erabilera ez dator bat KZ 1.4. artikulua azaltzen den iturrien teoriarekin, Zuzenbidearen printzipio orokorretara heldu behar baita soilik legearen edo ohituren faltan, eta kasu honetan bada arau aplikagarri bat: KZ 1137. artikulua.
- Kaltearen ordaina ziurtatze helburuari dagokionez, nahiz egia izan solidaritateak hobeto betetzen duela xede hori, frogatu egin beharko litzake legeak babes erantsi hori egintza ez-zilegi guztientzat nahi izan duela eta ez soilik zigor penala sortarazten dutenentzat.
- Bestalde, solidaritatearen kontrakoek diotenez, obligazio hori izaeraz solidarioa balitz, ez litzateke espresuki hainbeste kodetan aurreikusi beharko.
- Gainera, ezin izango da beti kaltea osotasunean edozein partehartzaileri egotzi, zeren, teorikoki posible bada ere, errealitatean beharrezkoa izan baita besteen laguntza egintza burutzeko.

YZQUIERDO TOLSADAK⁵⁹ adierazten du “erantzukizun akilianozko suposamendu berberak modu ezberdinean tratatzea zentzugabekeria denez, jurisprudenzia berak solidaritatea asmatu behar izan du, era berdinetan tratatzeko berdinak direnak”⁶⁰. Egile honek Kode zibilean kontratuz kanpoko erantzukizun

⁵⁹ YZQUIERDO TOLSADA, *Responsabilidad civil*, aip., 69. orria.

⁶⁰ Aipagarriak dira gai honetan Auzitegi Gorenaren, 1. Salaren sententzia hauek: 1985/IV/25, 1987/V/14, 1989/II/20 eta 1994/I/26.

solidarioa aurreikusten duen arau bat gehitzea eskatzen du, eta Kode penalean azaltzen diren eduki zibileko artikulua guztiak ezabatzea, 116. Artikulua bereziki (horrela aurrerantzean, Kode Penalak arau zibiletara jo beharko luke gaia arautzeko).

Kontratuz kanpoko erantzukizuna solidario gisa definitzeak, baditu bere ondorioak ordena prozesalean, beharrezko litiskontsorzio pasiboaren salbuespena sortarazten baitu era honetako prozesuetan⁶¹. Erantzuleen solidaritateari esker, auzi jartzailea edozeinen aurka zuzendu daiteke, ondoren demandatua izan denak besteen kontrako akzioa izango duelarik (KZ.1144 artikulua xedatzen du bere lehen pasartean, hartzekodunak bere eskaera edozein zordun solidarioren aurka edo guztien kontra zuzendu dezake).

Dena dela, solidaritatearen tesia baztertzen duten autoreek, beharrezko litiskontsorzio pasiboaren salbuespen aukera ukatzen dute, ulertzen baitute Auzitegi Gorenak erabilitako argudioak ez direla zuzenak, alabaina, adierazi dugun bezala, jurisprudenzia zentsu honetan jarraitua eta errepikatua da⁶².

⁶¹ Bi artikuluren irakurketa gomendatzen dugu: MUÑOZ JIMENEZ, F.J., “Consideraciones en torno al litisconsorcio necesario y los vínculos de solidaridad pasiva”, *RGD*, 1991, 5745. orria eta COBO PLANA, J.J., “La solidaridad de los intervinientes en el hecho ilícito como fundamento de la exclusión del litisconsorcio pasivo necesario en el proceso de responsabilidad por culpa extracontractual”, *Actualidad y derecho*, 13.zbki, 1994, 1. orria.

⁶² Auzitegi Gorenaren, 1. Salaren sententziak 1988/I/19, 1989/II/20, 1992/IV/21, 1992/X/10, 1993/II/1, 1994/I/26 eta 1994/II/8.

Komenigarria izango da beraz, eztabaida honen nondik norakoak garbi ulertzeko Auzitegi Gorenak bere erabakia arrazoitzeko erabiltzen dituen argudioak aipatzea:

- Egintza kaltegarria subjektu anitzek sortua izan denean, beraien artean solidaritatezko harremana sortzen da, azaltzen diren jardute eta erantzukizunak indibidualizatu ezin diren guztietan.
- Erantzukizuna solidarioa denean KZ. 1144. artikulua ezartzen da, zeinak hartzekoduna ahalmentzen duen edozein zordun solidarioen aurka edo guztien aurka jotzeko.
- Azkenik, demandatua kondenatua izan arren, beti ere eska diezaike gainontzeko partehartzaileei beraiei dagokien zatia (KZ 1145.2.art.). Ez dago, beraz, beharrezko litiskontsortzio pasiboa justifikatzen duen arrazoirik⁶³.

Kritikoez ez dituzte argudio hauek onartzen⁶⁴, alde batetik, KZ. 1144. artikulua “argi eta espresuki” erabiltzen dituelako “hartzekodun” eta “zordun” terminoak, eta kontratuz kanpoko erruari buruzko prozesuetan ezin liteke

⁶³ Apunte azkar moduan, beharrezko litiskontsortzio pasiboari buruzko bi hitz esango ditugu. Erakunde hau alderdikide guztiek prozesuan entzunak izateko duten eskubidean oinarritzen da (bestela indefentsioa emango litzateke) eta erlazio juridiko batzutan ematen den derrigorrezko tratu berdintasunean: kasu hauetan ez da onartzen egitate berdin batek erantzun judizial ezberdinak edo kontraktatuak izatea. Sakonago MUÑOZ JIMENEZ, F.J., “Consideraciones en torno...”, aip., 5752.orria.

⁶⁴ Doktrinak Auzitegi Gorenaren jurisprudentiaren aurka egindako kritika ezberdinak COBO PLANAREN “La solidaridad de los intervinientes...”, aip., lanean jasotzen dira, 6. orrian eta DIEZ-PICAZO, L., *Fundamentos de Derecho civil patrimonial*, II, Madrid, 198, 229 eta ond.orriak.

hartzekodunez eta zordunez hitz egin, mota honetako auzietan kalitate hau soilik berau deklaratzeko duen epaia eman ondoren estima daiteke eta.

Egintza ez-zilegi batetik sortutako obligazioak existitzeko beharrezko diren auresuposamenduen pilaketa egiaztatu denean (ekintza edo omisio ez-zilegia, kaltea, erruduntasuna, gaur egun objetibizazioa ematen ari bada ere, eta egintza eta kaltearen arteko kausalitatearen erlazioa), jaiotzen da juridikoki zordunaren obligazioa (kaltearen eragilea), alegia, kaltetuak (orain hartzekodun bihurtu denak) sufritu duen kaltea ordaintzekoa. “Kode zibilaren 1144. artikulua bakarrik ezarri daiteke, zordun alderdian subjektu anitz dituzten obligazioen kasuan, interpretazio judiziala egin aurretik ere existitzen dutenean, eta zorduna edo zordunak obligazio horiek bete araztera zuzendutako uzien kasutan”⁶⁵.

Nabardura hori oso garrantzitsua da, zeren obligazioa ez bada “existitzen” dudarik gabe eta lortu nahi dena bere existentziaren deklarazioa bada, deklarazio horrek ukitzen dituen guztiak demandatu beharko baitira (ukitutako guztien litiskontsortzio pasiboa behar da).

Ondorioz, egile horiek irizte dute KZ. 1144. art. ezin dela ezarri kontratuz kanpoko erruari buruzko prozesuetan.

Ildo beretik, bigarren argudioa ere kritikatu izan da, esku-hartzaileen solidaritatea prozesu judiziala hasten den momentu berberetik ematen dela uste

⁶⁵ COBO PLANA, J.J., “La solidaridad de los intervinientes...”, aip., 8.orria.

baitu; benetan, solidaritate hori prozesuaren amaieran zehazten denean, froga guztiak praktikatu ondoren eta subjektu bakoitzaren erantzukizunak indibidualizatu ezin izan direnean.

Hori dela eta, demanda aurkatzeko unean, partehartzaileen arteko solidaritatea ez da existitzen oraindik eta auzi jartzaileak ez du ahalmenik erantzule bakar baten aurka zuzentzeko, beraz denak demandatu beharko ditu.

Ikusten dugunez, jarrera doktrinalak kontrajarriak dira. Alderdi bat Auzitegi Gorenaren interpretazioaren aldekoa da, besteak berriz arbuiatu egiten du. Hala ere, gure iritziz, egokiago dirudi gai honi buruz Kode penal eta Kode zibilean agertzen diren xedapen ezberdinak bateratzea, honela kaltetuaren ordaina modu eraginkorragoan bermatuko delarik. Horretarako egintza ez-zilegi bat sortarazten dutenen arteko harremanaren izaera solidarioa xedatuko duen araua testu zibilean barne sartzearen aldeko gara. Baina demandatua izan ez den alderdiaren (eta erantzule solidario deklaratu izan denaren) indefentsioa gerta ez dadin funtsezkoa izango da sententzia egikaritu aurretik une prozesal bat ezartzea non erantzule solidario ez prozesatuak bere alegazioak aurkezteko aukera izan baitu⁶⁶.

⁶⁶ Doktrinak zalantzan jarri du sententziaren “epaitutako gauza” eraginkortasuna zordun-solidaritate loturen bitartez elkartutako pertsonen artean. Egia esan eraginkortasun hau ez da posible mota honetako prozesuetan. Ikus DIEZ-PICAZO, *Fundamentos del derecho civil...*, aip., 229.orria.

III.- ERANTZULE ZIBILAREN ORDAINEZINTASUNA: KAUDIMENGABEZIAREN

ARAZOA

Baliteke erantzule zibilak ez izatea ondasunik bere erantzukizunaz erantzuteko eta kaudimengabeko deklaratzeko, edota gerta daiteke zenbait ondasun izatea, baina horiek ez izatea nahiko eragindako kalte osoaz erantzuteko (kaudimengabezi partzialaren kasua da). Azkenik, kasu gutxi batzutan, erantzule zibil zuzena erabat kaudimendun da eta ordaintzera behartuta dagoen prozesu-kostuak osotasunean ordain ditzake.

Lehenengo adierazi ditugun bi hipotesi horietan, alegia, behin-betiko kaudimengabezi edo kaudimengabezi partzialaren kasuetan azaltzen da hirugarren erantzule zibila, edo Kode penaleko 118 eta 120 artikulua aztertzerakoan ikusitako ordezkoko erantzule zibilaren figura; lege penalaren asmoa, malderra edo kaltetu zibila gordetzea, babestea, laguntzea eta sorostea baita⁶⁷.

Ordezko erantzule zibilari prozesu penalera deitzen zaio kaltetu zibila babestearren, erantzule zuzenak duen ondasuna nahikoa ez denean hark kalte zibilaz erantzun beharko du eta gerora, ordezkoko erantzule zibilak, errepikapen-eskubidearen bitartez, erantzule zibil zuzenaren aurka joan dezake bide zibilean jasan duen kalte ekonomikoaren ordaina galdatzeko (KP. 116. art), beti ere erantzule honen egoera hobetu bada eta ordaindu beharrekoari aurre egiteko gauza denean.

⁶⁷ HERNANDEZ HENRIQUEZ, E.E., “La Responsabilidad civil en el proceso penal”, *Rev. Der. Proc. Iberioam.*, 1979, 497. orria.

Alabaina, bereiztu behar dira argi eta garbi kasu bat eta bestea: ordezeko erantzuleak erantzukizun zibilaren kopuruaz erantzuten du soilik, hau da, dagokion itzulketaz, medeapenaz eta kalte-ordainaz, baina ez beste ezertaz; ondorioz ez du erantzuten penatuak ordaindu behar lituzkeen prozesu kostaz.

Ezberdintasun berbera aurki genezake prozesu penalean sortzen diren kautelazko edo bermezko neurriei dagokionez, zeren prozesuaren ondorio ekonomikoen ordainketa bermatzeko badaezpadako neurri gisa pieza prozesal bananduak (erantzukizun zibilari buruzko piezak) izapidetzen direnean, horiek bi motakoak izan daitezke: erantzukizun zibileko pieza bakarra non deituak prozesutik sor daitezken ondorio ekonomiko guztiak bermatzen baitituen; eta ordezeko erantzukizun zibilari buruzko pieza, zeina lehenengo pieza aurrera ateratzen ez denean bakarrik irekiko baita eta kaltetu zibilaren eskubideak babestearren.

Fiskalei zuzendutako Instrukzioak 1/1992, urtarrilak 15ekoak, gogorazten die haiei, kaltetuari egindako galeraren medeapena bermatzea guztiz garrantzitsua dela, eta konponketa hau zehapen penalarekin amaitzen ez dela gogorarazten die. Berebat, xedapen honek adierazten du Fiskalek duten eginkizuna erantzukizun zibileko piezen izapidetzea sustatzen eta zaintzen, eta lan hau hobeto betetzeko, errudunaren ondasuna sakonki ikertzea gomendatzen die, polizia judicialaren eta Udalen eta Ogasun Ordezkaritzen txostenen laguntzaz. Gainera, exekuzioan dagoen prozesu baten behin-behineko artxibatze agindu ez dezatela eskatzen die, delitutik eratorritako kalte-ordainen ordainketa frogatzen ez den bitartean, edo errudunaren benetako kaudimengabezi-egoera (azken kasu honetan, behin-

behineko artxibatze bakarrik eskatu ahal izango dutelarik, kalte-ordain zibilen galdekizunerako epea preskribitu ez den bitartean).

Kaudimengabezi partzialaren kasuan, kode penalak 125. artikuluan ordainketa orden bat xedatzen du:

“Errudunaren ondasunak ez balira nahikoak diruzko erantzukizun guztiei aurre egiteko, ondorengo orden honetan ordainduko dira:

- 1.- Sortutako kaltearen medeapena eta galeren indemnizazioa.
- 2.- Estatuari auzian bere kontura egindako gastuengatik kalte-ordaina.
- 3.- Akusatzailea partikularraren gastuak, sententzian horrela ezarri denean.
- 4.- Gainontzeko prozesu-kostak, baita prozesatuaren defentsarenak ere, lehentasun ordenarik gabe.
- 5.- Isuna.

2. Delitua izan balitz alderdi baten eskariz bakarrik pertsegitu litezkeen horietakoa, akusatzaile pribatuaren gatuak Estatuaren indemnizazioaren aurretik ordainduko dira”.

Hau da, lehenik erantzukizun zibila betetzen da eta ondoren gainontzeko prozesu-kostak. Ordezko erantzukizun zibilaren kasuan, honek soilik ordaindu beharko du medeapenaren “quantum”-a osatzeko falta dena.

IV.- ERANTZUKIZUN ZIBILAREN EXEKUZIOA

Erantzukizun zibilaren exekuzioa aurrera eramateko bete behar den lehen suposamendu prozesala sententzia penala kondenatzailea eta irmo izatea izango da; jakina bigarren suposamendua, epaiak erantzukizun zibila ordaintzeko kondena barne sartua eramatea izango da, eta azkenik, beharrezkoa da erantzule zibil bat ere edukitzea, alegia, kalteaz erantzungo duen pertsona bat, erruduna bera edo ordezeko erantzule zibila izan daitekeelarik.

Erruduna eta erantzule zibil nagusia kaudimenduna bada, Legea epaiketa Kriminalari buruzkoak, 239. eta ondorengo artikuluetan xedatzen duenaren arabera, zigorraren exekuzioa kosta-tasazioko izapidean burutuko da. Erruduna kaudimendun partziala balitz eta ez balego ordezeko erantzule zibilik, honek dituen ondasunekin erantzun beharko luke partzialki bada ere; aldiz, ordezeko erantzule zibila bat balego, honek gerakina ordaindu beharko luke, honela erantzukizun zibila osotasunean exekutatu. Azken hipotesi bezala aipatuko dugu errudun guztiak kaudimengabeak direnean⁶⁸ baina ordezeko erantzule zibil bat badagoenean ematen den kasua. Hemen, ordezeko erantzule zibilak kalte osoaz erantzun beharko du, nahiko ondasunik izango balu behintzat, edo kaudimendun partziala izango balitz, soilik ordaintzeko gauza den neurrian. Erantzule zibil subsidiarioa ere kaudimengabea izanez gero edo besterik gabe, pertsona honek existitzen ez badu,

⁶⁸ Errudun guztiak beren kuotez komunki erantzuten dutela gogoratu.

erantzukizun zibila bertan behera geldituko litzateke, eta, ondorioz, kaltetuaren asmoa ez da beteko, berriro ere kalte larri bat sufritu araziz⁶⁹.

⁶⁹ Planteatzen diren arazoak sakonago aztertu nahi izanez gero, ikus HERNANDEZ HENRIQUEZ, “La Responsabilidad civil...”, aip., 497 eta ond.orriak.

V.- PERTSONA JURIDIKOEN ADMINISTRATZAILEEN ERANTZUKIZUN ZIBILA

Pertsona juridikoen esparruan, oinarrizko funtzioak askotan egitura pluripertsonala duten erakundeek garatzen dituzte, pentsa adibidez sozietate anonimo baten egituren: Batzarra, Administrazio-kontseilua eta Batzorde exekutiboa egiaztapen honen adibide garbiak dira.

Horietako zenbait erakunde kolegiatuk, delitu ekonomikoen eremuan erliebe penala duten egintza eta ez-egiteak burutu ditzake. Kasu horietan zeintzuk izan behar dute delituaren egospen-irizpideak?, eta zehazki, nolako izaera du esku-hartzaileentzat sortzen den erantzukizunak eta zeintzuk dira honen mugak?.

Espaniar Sozietate Anonimoen Legeak, 133. artikuluan zera xedatzen du: “administratzaileek erantzungo dute sozietatearen, akziodunen eta sozietateko hartzekodunen aurrean, legearen edo estatutuen aurkako egintzak edo karguaren egikaritzak eskatzen duen diligentziarik gabe burututakoek sortzen duten kaltearengatik”. Administrazio organoko kide guztiek solidarioki erantzuten dute, egintzaren aurka espresuki azaldu zirenak nahiz kaltea ekiditen saiatu zirela edo egintza ezagutzen ez zutela frogatzen dutenak izan ezik. 3. atalak xedatzen duen bezala, ez du sortutako erantzukizuna arinduko, erabakia ondoren Batzarra Nagusiak berretsia edo baimendua izanak.

134. Artikuluak, bestalde, “erantzukizun akzio soziala” delakoa arautzen du: administratzaileen kontrako erantzukizun akzioa sozietateak aurkatuko da Batzorde Orokorraren adostasuna lortu ondoren. Akziodunek ere akzio hau erabiltzeko

gaitasuna izango dute kapital sozialaren ehuneko bostaren titularrak direnean eta administratzaileek Batzorde Orokorra ospatzeko deialdirik egiten ez dutenean edo eginez gero bertan hartutako erabakia akzioa ezartzearen kontrakoa denean. Era berean, administratzaileen aurkako akzio zuzena dute sozietatearen hartzekodunek, beti ere, ondare soziala kredituak ordaintzeko adinakoa ez bada eta akzioa sozietateak edo akziodunek erabili ez badute.

Orain arte, beraz, erantzukizuna galdatzeko akzioa nork erabili dezaken aztertu dugu eta ondoren, akzio honen sorrera eragingo duten jokaerak edo jarrerak aipatu behar ditugu, alegia, erantzukizuna zein egintzetatik eratortzen den ikusiko dugu. Nolabaiteko eredu izate arren hona hemen egintza arruntenen zerrenda: arriskutsuegia den kontratu bat hitzartu, akzioen gehiengoa duen akziodunaren onurarako eragiketak egin, erosketa bat egitea administratzaile batek interes zuzena duenenean salerosketa horretan... Kasu hauek ez dute arazorik planteatzen beren “akatsa” garbi antzematen delako, baina sozietatearen eguneroko jardueran egikaritzen diren beste jokabide asko ez dira hain suposatu garbiak eta sozietatearentzako arrisku handi bat izan daitezke. Legearen testu berriak errealitate honi erantzunez “beharrezko diligentziarik gabe” eragindako kalteei buruz hitz egiten du eta ez erreforma aurretik aipatzen zen “malezia, ahalmen gehiegikeria edo zuhurgabetasun larriaz eragindako kalte”-ei buruz⁷⁰.

Jokabide hauetatik eratorritako administratzaileen erantzukizuna, fiskala, penala edo/eta zibila izan daiteke, egintzak urratu duen arauaren arabera. Guk,

⁷⁰ Iritzi hau DE ANGEL YAGÜEZ (*Tratado de responsabilidad civil*, aip., 250.orria) autorearena da: “akziodunen kontzientzia loaren esnatze baten aurrean gaude, Kontsumo Zuzenbide eremuan azken urte hauetan gertatutakoaren antzera”.

jakina, erantzukizun zibila eta bere izaera besterik ez ditugu aztertuko hurrengo lerroetan.

Kontratuzko erantzukizuna, hertsiki, ez da sortuko bakarrik kaltetuarekin kontratu baten bidez loturik dagoen pertsonak eragindako kalteetatik; orokorki, pertsona batek egindako edozein galerak sortarazten du, honen eta kaltetuaren artean erlazio juridiko batek existitzen badu eta horren ondorioz lehenengoak portaera zehatz bat mantendu behar badu. Mota honetako erlazorik ematen ez bada, sortzen den erantzukizuna kontratuz kanpoko izango da.

Administratzaileen kasuan, erlazio “organiko”⁷¹ bat egongo da, alegia, pertsona juridikoak ihartutako erabiltzen duen organoaren edo bitartekoaren eta pertsona beraren artean ematen dena. Erlazio hau ez da nahikoa izango bertatik kontratuzko erantzukizuna eratortzeko baina ez gara ere kontratuz kanpoko erantzukizunaren aurrean egongo, administratzaile izaerak eginbehar zehatz batzuk ezartzen baititu sozietatearekiko. Arazo hau konpondu nahian, doktrinak zenbait ideia eman ditu; honela gehiengoaren iritziz kasu honetan, ex lege edo iturri legala duen erantzukizunaren aurrean egongo gara eta ezingo da Kode zibilaren 1902 artikulua aplikatu. Azalpen hau oso garrantzitsua da, ideia honen ondorioz salbuetsi egiten baita erru akilianoaren irizpideen aplikazioa, alegia, froga-zamaren iraulketa, erruaren baliospen zorrotza, kaltetuaren aldeko presuntzio...

⁷¹ ANGEL YAGÜEZ, *Tratado de responsabilidad civil*, aip., 251.orria.

Berebat, egintza ez-zilegiaren egitura aztertuz, 133.artikuluaren lege-kontrakotasunaren elementua islatua azaltzen zaigu “Legearen edo estatutuen kontrako egintzak” esaldian, eta “karguarekiko beharrezko den dilijentzia gabe egindakoak” aipamenean, erruduntasun elementua agertzen zaigu⁷². Bi elementu hauek aipatu izanak galdatzen du egintzan ere, alde batetik, lege edo estatutuen urratze bat agertu behar duela, eta bestetik, erruduntasunez jokatu behar dela, ez baita kasu honetan erantzukizun objektiborik ematen⁷³.

Erruduntasunik egon den ala ez aztertzerakoan, beharrezkoa izango da kontutan hartzea administrazio lanak galdatzen duen diskrezionalitatea, batzutan egitateak, datuak eta abar ezkutatzeraino iritsi daitekeena. Bestalde, administrazioak beti ere nolabaiteko arriskua dakar, bai erabakiak hartzerakoan baita haiek exekutatzekoan ere.

Ondorengo orrietan Atzerriko Zuzenbideek administrazioaileen erantzukizuna nola arautu duten ikusiko dugu, Italiakoa araudiarekin hasiko garelarik. Garai batean Italiako Merkataritza Kode zaharrak 149.artikuluaren, sozietatearen aurrean administrazioaileen erantzukizun solidarioa aurreikusten zuen, beren eginbeharrak ez-betetzeagatik eragindako kalteen ondoriozkoa. Ez zuten erantzun beharko Kontseiluaren erabakiaren kontra azaldu zirenak eta desadostasun hau Kontseiluaren eztabaida erregistroan idatzi arazi zutenak.

⁷² Auzitegi Gorenaren, 1. salaren 1991ko maiatzak 11ko sententzian enpresa baten gerentearen erantzukizuna deklaratzeko da sozietatearen xede sozialetik kanpo, egoera ekonomiko larrian zeuden sozietateekin negozioak burutu zituelako. Jokabide hau, auzitegiak arduragabekeri larritzat hartzen du.

⁷³ Ikus ANGEL YAGÜEZ, *Tratado de responsabilidad...*, aip., 252.orria.

Doktrinak⁷⁴ gai honen inguruan arazo bat planteatu zuen: zer gertatuko litzateke erabakia hartzeko unean administratzailearen bat egongo ez balitz? Honek ere erantzun beharko luke erabaki horrek eragindako kalteengatik? Gehiengoaren ustetan absentsia hau justifikatzen duten arrazoiak aztertu beharko dira galdera horri erantzuteko eta erantzukizuna salbuetsi egingo litzateke kausa arrazoizkoa eta ezinbestekoa izanez gero (adibidez, sozietatearen izenean negozio bat burutu beharra beste hiri baten, gaixotasuna e.a.).

Gaur egungo Kode zibilaren 2392.artikuluak, funtsean behintzat, Merkataritza Kodea zaharrak ezarritakoa bereganatu du suposatu berri bat arautuz: “administratzaileek sozietatearen aurrean erantzun beharko dute (...) kudeaketaren martxa orokorra zaindu ez dutelako edo, egintza kaltegarrien existentzia ezagutuz, horien ondorioak ekiditeko, kentzeko edo arintzeko ahalegin guztiak egin ez dituztenean”. Aipatutako artikuluaren hirugarren paragrafoak, berriz, erantzukizunaren hedadura zehazten du eta “administratzaileen artetik, erruduna ez denak batzar eta kontseilu eztabaiden liburuan bere desadostasuna jaso arazi badu eta sindikoen kolegioko buru denari egintza honen berri idatziz eman badio” ez du sozietatearen aurrean erantzun beharko.

Sindacoen kasuan, halaber, hauek administratzaileekin batera solidarioki erantzun beharko dute “azken hauen egintza edo omisioengatik, beren karguak galdatzen duen bezala zaindu izan balute kaltea ez zela sortuko egiaztatzen

⁷⁴ Guztien artetik CONTI, L., *Tratatto di Diritto penale dell'impresa*, Padova, 1990, 251. orria, nabarmendu daiteke.

bada”(KZ ita. 2407. 2 art.). Sindacoen lana Administrazio Kontseiluak erabakitakoa kontrolatzea da (KZ ita. 2403 art.) eta erabaki hauek legearen edo estatutuen kontrakoak badira, edo nabarmenki axolagabekeriaz egindakoak direnean, edo objektu sozialaren aurkakoak, pertsona hauek beren kolegioko eztabaida aktetan beren desadostasuna jaso beharko dute eta iritzi honen zergatiak (KZ ita. 2403.5 eta 2404.4 artk.)⁷⁵.

Italiako araudia iradoki ondoren, ordenamendu juridiko anglosaxoiaren txanda da⁷⁶. Araudi hau bere praktikotasunak bereizten badu ere, administratzaileen erantzukizuna salbuesteko zenbait formalitate galdatzen dira: Kontseiluaren aurrean ez-zilegitzat jotzen dituzten egintzen kontra azaldu beharko dute, eta gainera adierazpen hau ahoz egin beharko dute.

Absentziak, besterik gabe, ez du erantzukizuna salbuesteko balio. Absenteak kaltegarria edo irregularra kontsideratzen den erabakia ezagutu bezain laster, secretary-ari bere gaitzespena jakin arazi beharko dio, bileraren aktan iritzi hau jasotzeko eskatuz.

Ordenamendu germanikoek Vorstand eta Aufsichtsrat osatzen dutenen gain uzten dute frogatu beharra beren lanean negozio kudeatzaile arduradun baten diligentziaz ihardun dutela (AKG 93.2 eta 116 paragrafoak).

⁷⁵ CONTI, *Tratatto di diritto...*, aip., 249.orria.

⁷⁶ Guk errepasso azkar bat besterik ez dugu egingo orain. Gai hau sakontzeko ikus BALLANTINE, J., *On Corporations*, London, 1986, 163.orria.

Bukatzeko, Sozietateen Lege frantziarrak, administratzaileek estatutuak edo legeak urratzeagatik zein kudeaketan egindako akatsengatik erantzun behar dutela ezartzen du eta egintza horretan administratzaile batek baino gehiagok esku hartu badute, hauen erantzukizuna ez dela solidarioa adierazten du, bakoitzak epaileak zehaztutako zatiarengatik erantzun beharko duelarik.

VI. BIBLIOGRAFIA

- ANGEL YAGÜEZ, R. DE, Tratado de responsabilidad civil, Madrid, 1993.
- BALLANTINE, J., On Corporations, London, 1986.
- COBO PLANA, J.J., "La solidaridad de los intervinientes en el hecho ilícito como fundamento de la exclusión del litisconsorcio pasivo necesario en el proceso de responsabilidad por culpa extracontractual", Actualidad y derecho, 13.zbki, 1994, 1. Orria.
- CONTI, L., Trattato di Diritto penale dell'impresa, Padova, 1990.
- DIEZ-PICAZO, L., Fundamentos de Derecho civil patrimonial, II, Madrid, 1986.
- FERRANDIS VILELLA, "Una revisión crítica de la clasificación de fuentes de las obligaciones", ADC, 1958, 28 eta ond.orriak.
- GARCIA GOYENA, F., Concordancias, motivos y otros comentarios, Zaragoza, 1975 (reimp.).
- GUILARTE ZAPATERO, V., "Comentarios a los artículos 1137 a 1140", Comentarios al Código civil y compilaciones forales, ALBALADEJOk zuzen., XV, Madrid, 1983, 233.orria.
- HERNANDEZ HENRIQUEZ, E.E., "La Responsabilidad civil en el proceso penal", Rev. Der. Proc. Iberioam., 1979, 497 eta ond.orriak.
- IDIAKEZ, A., "Erantzukizuna", Zuzenbidea/1 Hiztegia, Donostia, 1987, 103.orria.
- LACRUZ BERDEJO, J.L., eta SANCHO REBULLIDA, F. De A., Elementos de dercho civil, II, 1., Barcelona, 1988.
- LOPEZ JACOISTE, J.J., Transformaciones y paradojas de la responsabilidad extracontractual, Madrid, 1994.
- MUÑOZ JIMENEZ, F.J., "Consideraciones en torno al litisconsorcio necesario y los vínculos de solidaridad pasiva", RGD, 1991, 5745.orria.
- PANTALEON, F., "Comentario al artículo 1902", Comentarios del Código civil del Ministerio de Justicia, Madrid, 1991, 1970 orria.
- PANTALEON, F., "Perseverare diabolicum, ¿otra vez la responsabilidad civil en el Código penal?", Jueces para la Democracia, 19.zbkia, 1993, 6 eta ond.orriak.
- ROSAL FERNANDEZ, J. DEL, Tratado de Derecho español.Parte general, III, Madrid, 1972.

- RUIZ VADILLO, A., "Responsabilidad civil", Comentarios a la legislación penal, V, 3, Madrid, 1985, 364-365 orriak
- RUIZ VADILLO, A., "Un supuesto de condena de un empresario al amparo del artículo 1903 del Código civil, sin estar individualizado el conductor causante del accidente automovilístico", Rev. Der. Cir., 6 zbkia, 1975.
- SANTOS BRIZ, La responsabilidad civil, Madrid, 1981.
- SOTO NIETO, F., "La acción directa contra el asegurador en el proceso penal por hechos imprudentes", La Ley, 10 de diciembre de 1993, 3.orria.
- YZQUIERDO TOLSADA, M., La responsabilidad civil. Contractual y extracontractual, I, Madrid, 1993.